AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1576

AGINDUA, 2013ko urtarrilaren 14koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Helduen Hezkuntzako ikastegietan eta espetxeetan zailtasun bereziko izaera singularreko irakaskuntza-lanpostuak betetzeko merezimendu-lehiaketa deitzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzarako irakasleen kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legearen 4.1.c) eta 23. artikuluetan aurreikusitakoa kontuan hartuta, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako maisu-maistrentzako lanpostuen zerrendak onartzen dituen urriaren 16ko 207/2012 Dekretuak 3.artikuluan xedatutakoaren arabera, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak hau

XEDATZEN DU:

Artikulu bakarra.– Agindu honen II. eranskinean jasotzen diren irakaskuntza-lanpostu bereziak betetzeko merezimendu-lehiaketarako deia egiten da, agindu honen I. eranskinean ezarritako oinarrien arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Deialdi honen bidez behin betiko destinoa lortu duten maisu-maistrek, eta, aldi berean, ondoko deialdi honetan parte hartu eta behin betiko destinoa lortu dutenek: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko urriaren 26ko Agindua (urriaren 31ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko unibertsitatekoak ez diren irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia egiten duena (deialdi hori, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak xedatzen dituen irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioak parte hartzekoa da), bada, maisu-maistra horiek deialdi honen behin betiko esleipenen zerrenda argitaratu eta biharamunetik aurrera bost egun naturaleko epea izango dute bi destinoen artean aukeratzeko; eta aukeratzen ez den destinoa ezetsitzat joko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honen kontra, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzierrekurtsoa administrazioarekiko auzietarako auzitegiari, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango du eragina agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 14a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

I.– Parte-hartzaileak.

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-Maistren kidegoko karrerako funtzionario guztiek parte hartu ahal izango dute lehiaketa honetan, euren administrazio-egoera gorabehera, eginkizunik gabe utzita daudenak izan ezik, egoera horretan segitzen duten bitartean.

Borondatezko eszedentzian daudenek, berriz, jarduneko zerbitzura itzultzeko bete beharreko baldintzak bete beharko dituzte.

II.– Baldintza zehatzak.

Bigarrena.– Lehen oinarrian adierazitako baldintza orokorrez gain, maisu-maistrek Lehen Hezkuntzako espezialitatearen titulazioa, edo espezialitate hori emateko gaituta daudela, egiaztatu beharko dute, urriaren 29ko 1364/2010 Errege Dekretuak laugarren xedapen gehigarrian eta errege dekretu hori indarrean sartu aurreko araudiak xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena.– Derrigortasun-eguna igarota daukaten hizkuntz eskakizuneko lanpostuak eskatzeko, beharrezkoa izango da dagokion hizkuntz eskakizuna egiaztatua izatea edo hizkuntz eskakizun horiekin legez homologatutako hizkuntz ziurtagiriak izan beharko dira. Bestela, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak ezagutu eta ikasketa horiek euskarazko titulu eta ziurtagiriekin egiaztatu behar izatetik salbuesten duenak, aipatzen dituen zirkunstantziak egiaztatu beharko dira.

III.– Esleipenerako merezimenduen baremoa.

Laugarrena.– Lortutako puntuazioaren araberakoa izango da esleipenaren lehentasun-hurrenkera, baremo honen arabera:

a) Espetxeetako irakaskuntza-lanpostuetan funtzionario gisa emandako zerbitzu-denbora:

Lehen, bigarren eta hirugarren urtea: urteko puntu 1.

Laugarren urtea: 2 puntu.

Bosgarren urtea: 3 puntu.

Seigarren, zazpigarren, zortzigarren, bederatzigarren eta hamargarren urtea: 4 puntu urteko.

Hamaikagarren urtea eta hortik aurrerako urteak: 2 puntu urteko.

Atal honetan urte-zatiak honela zenbatuko dira:

– Sei hilabete edo gehiagoko zatia, urte osoa bezala.

– Sei hilabete baino gutxiagoko zatia ez da kontatuko.

Dagokion hezkuntza-administrazioaren organo eskudunak egiaztatutako zerbitzu-orriaren bidez egiaztatuko da, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko langileen kasuan izan ezik. Kasu hauetan, zerbitzu hauek eman zirenean langilea atxikita zegoen ikastetxeko zuzendaritzaren ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko dira zerbitzuak eta egiaztagiri horrek Hezkuntza Ikuskaritzaren oniritzia izan beharko du.

b) Maisu-Maistren Kidegoan karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzu-urteak.

Puntu bat zerbitzu-urteko.

Atal honetan urte-zatiak kontatzeko, 0,0833 puntu emango dira hilabete osoko.

Dagokion hezkuntza-administrazioaren organo eskudunak egiaztatutako zerbitzu-orriaren bidez egiaztatuko dira urte-zatiok, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko langileen kasuan izan ezik.

c) Hezkuntza-administrazio publikoek antolatutako hobekuntza-ikastaroak, h) idatzi-zatian baloratu ez direnak:

Idatzi-zati honen ondorioetarako, ikastaro guztien orduak edo, behar izanez gero, kredituak batuko dira, eta ez dira zenbatuko 10 ordutik behera geratzen diren orduak.

Kredituak 10 ordukoak direla joko da, baldin eta ikastaroak kredituen bidez adierazita badaude eta besterik jasotzen ez bada.

Ikastaro hauek baino ez dira kontuan hartuko: Maisu-Maistren kidegoarenak propioak diren espezialitateei buruzko ikastaroak edo irakaskuntzarenak propioak diren jarduerekin lotura duten zientzia-, didaktika- eta antolamendu-alderdiei buruzko ikastaroak.

Aurreko c) idatzi-zati horretan, gehienez ere, 3 puntu lortu ahal dira.

c.1.– Emandako ikastaroak: Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak, autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioek edo hezkuntza-administrazio horiek homologatu edo onartutako irabazte-asmorik gabeko erakundeek eta unibertsitateek antolatutako etengabeko prestakuntzako ikastaroetan (hainbat modutan ulertuta: lan-taldeak, mintegiak, ikastetxeetako prestakuntza-taldeak, ikastaroak) ponente edo irakasle gisa parte hartu edo ikastaro horiek gidatu, koordinatu edo horien tutore izateagatik: ikastaroko 10 orduko 0,10 puntu, gehienez puntu batera arte.

c.2.– Gainditutako ikastaroak: Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak, autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioek edo hezkuntza-administrazio horiek homologatu edo onartutako irabazte-asmorik gabeko erakundeek eta unibertsitateek irakasleak etengabe prestatzeko antolatutako ikastaroetara joateagatik (aurreko puntuan adierazten den bezala ulertuta): gainditutako eta egiaztatutako ikastaroko 10 orduko 0,10 puntu eta, gehienez ere, 2 puntu emango dira.

Aurreko c) idatzi-zatiko merituak egiaztatzeko, ikastaroen ziurtagiriak aurkeztuko dira eta ziurtagirian idatzita jaso beharko da ikastaroa zenbat ordukoa izan den. Irabazi asmorik gabeko erakundeek antolatutako ikastaroen kasuan, fede eman beharko da ikastaroak onartuta edo homologatuta daudela.

d) Kidegoan sartzeko aurkeztutako tituluez besteko titulu akademikoak:

MEREZIMENDUAK	BALORAZIOA	EGIAZTAGIRIAK
Unibertsitateko bestelako titulazioak: Izaera ofizialeko unibertsitate-titulazioak, lehiaketan parte hartzeko aukeratutako kidegoan sartzeko oro har baldintza gisa aurkeztu ez badira, honela baloratuko dira:		
d.1.– Gradu-titulazioak: Graduaren unibertsitate-titulu ofizialagatik edo baliokideagatik:	2 puntu	Tituluaren kopia konpultsatua edo tituluaren emate-eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria edo titulazioaren egiaztagiri osagarria, hala badagokio, 1988ko uztailaren 8ko Aginduan (13ko BOE) edo 2007ko abuztuaren 13ko Aginduan (21eko BOE) edo unibertsitate-titulu ofizialak emateari buruzko abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretuan (abuztuaren 6ko BOE) aurreikusitakoaren arabera.

MEREZIMENDUAK	BALORAZIOA	EGIAZTAGIRIAK
d.2.– Lehen zikloko titulazioak: Diplomatura, ingeniaritza tekniko, arkitektura tekniko edo legez horien baliokidetzat jotako bigarren edo gainerako tituluengatik eta lizentziatura, arkitektura edo ingeniaritzaren baten lehen zikloari dagozkion ikasketengatik: Ez da atal honetarako baloratuko, inola ere ez, lehen titulua edo izaera horrekin aurkez daitekeen beste edozein ikasketa. Ez dira merezimendu gisa aurkeztutako ziklo luzeko beste titulazio akademiko batzuk lortzeko beharrezko diren lehen zikloak baloratuko.	1,5 puntu	Lortutako titulu guztien kopia konpultsatua edo tituluaren emate-eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria, 1988ko uztailaren 8ko Aginduan (13ko BOE) xedatutakoaren arabera. Lizentziatura, ingeniaritza edo arkitektura titulua aurkeztuz gero, 2. zikloko tituluari dagozkion puntuak onartuko dira, beste ondoriorik gabe. Lizentziatura, arkitektura edo ingeniaritzaren lehen zikloari dagozkion ikasketen balorazioa egiteko, aipatu titulu edo zikloak lortzeko beharrezko irakasgai edo kreditu guztiak gainditu direla berariaz adieraziko duen egiaztagiria.
d.3.– Bigarren zikloko titulazioak: Lizentziaturetako, ingeniaritzetako edo arkitekturetako bigarren zikloko ikasketengatik, edo legez baliokide deklaratutako beste titulu batzuengatik: Bigarren zikloa soilik duten titulazioak eta, ondorio guztietarako, Lizentziaturaren unibertsitate-tituluarekiko baliokide gisa onartutako tituluak bigarren ziklo gisa soilik baloratuko dira.	1,5 puntu	Lortutako titulu guztien kopia konpultsatua edo tituluaren emate-eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria, 1988ko uztailaren 8ko Aginduan (13ko BOE) xedatutakoaren arabera. Lizentziatura, ingeniaritza edo arkitektura titulua aurkeztuz gero, 2. zikloko tituluari dagozkion puntuak onartuko dira, beste ondoriorik gabe. Lortutako titulu edo ziklo guztien egiaztagiri akademikoa. Bertan, aipatu titulu edo zikloak lortzeko beharrezko irakasgai edo kreditu guztiak gainditu direla berariaz adieraziko da.
d.4.– Doktoregoa, graduatu ondokoak eta aparteko sariak: **d.4.1.–** Doktore titulua izateagatik:	2,5 puntu	Tituluaren kopia konpultsatua edo tituluaren emate-eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria edo titulazioaren egiaztagiri osagarria, hala badagokio, 1988ko uztailaren 8ko Aginduan (13ko BOE) edo 2007ko abuztuaren 13ko Aginduan (21eko BOE) edo unibertsitate-titulu ofizialak emateari buruzko abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretuan (abuztuaren 6ko BOE) aurreikusitakoaren arabera.
d.4.2.– Irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko eskatutakoa ez den eta lortzeko gutxienez 60 kreditu eskatzen dituen Masterraren unibertsitate-titulu ofizialagatik:	1,5 puntu	
d.4.3.– Ikertzeko Nahikotasunagatik edo ikasketa aurreratuak egiaztatzen dituen ziurtagiri-diplomagatik. Merezimendu hori ez da baloratuko Doktore titulua egiaztatzen bada:	Puntu 1	Dagokion ziurtagiri-diplomaren kopia konpultsatua.
d.4.4.– Doktorego, lizentziatura edo graduan aparteko sariak lortu izanagatik edo, Musika Kontserbatorio Nagusiek emandako titulazioen kasuan, goimailan ohorezko aipamena lortu izanagatik:	0,5 puntu	Hori egiaztatuko duen agiriaren kopia konpultsatua.

e) Argitalpenak.

e.1.– Lehiaketaren gai diren diziplinei buruzko edo irakaskuntzaren alde orokorrei edo curriculumaren arlo orokor edo zeharkako gaiei edo eskola-antolaketari buruzko argitalpen didaktikoengatik: puntu 1 gehienez.

Formatu elektronikoan bakarrik datozen argitalpenen kasuan, txosten ofiziala bat aurkeztuko da eta berorretan organismo emaileak argitalpena datu bibliografikoen basean agertzen dela ziurtatuko du. Agiri horretan datu-basea, argitalpenaren izenburua, egileak, aldizkaria, tamaina, urtea eta hasiera eta bukaerako orria adieraziko dira.

e.2.– Lehiaketaren gai diren diziplinei buruzko zientzia mailako eta proiektu eta berrikuntza teknikoen argitalpenengatik: puntu 1 gehienez.

Azaroaren 2ko 2984/1972 dekretuan xedatzen denaren arabera ISBN delakoa adierazi behar duten argitalpenen kasuan, hori jasotzen ez badute, ez dira baloratuko. Egilea argitalpenaren zuzendaria bada, orduan ere ez dira baloratuko.

Egiaztatzeko, argitalpenen aleak aurkeztuko dira. Euskarri berezietan argitaratutako materialei dagokienez-bideoak, CDak, etab.– argitaratze horiek berekin eraman dezaketen dokumentazio inprimatua aurkeztu beharko da: karatulak, helburu eta edukien foileto azalgarriak, inpresioak, etab. Era berean, argitaletxearen ziurtagiria ere aurkeztu beharko da. Bertan adieraziko da zenbat ale atera diren eta zelan zabaldu diren liburutegi komertzialetan.

f) Beste titulazio batzuk.

MEREZIMENDUAK	BALORAZIOA	EGIAZTAGIRIAK
f.1.– Araubide Bereziko Irakaskuntzen eta Berariazko Lanbide Heziketaren titulazioak: Atzerriko hizkuntzen gaitasunari buruzko egiaztagiriak edo Musika eta Dantza Kontserbatorio Profesionalek eta Goi Mailakoek, Arte Eskolek ematen dituzten Araubide Bereziko irakaskuntzen titulazioak, bai eta Lanbide Heziketarenak ere, alegatutako titulua lortzeko beharrezkoak izan ez badira, honela baloratuko dira: a) Europako Kontseiluko C2 mailaren egiaztagiri bakoitzeko: b) Europako Kontseiluko C1 mailaren egiaztagiri bakoitzeko: c) Europako Kontseiluko B2 mailaren egiaztagiri bakoitzeko: d) Europako Kontseiluko B1 mailaren egiaztagiri bakoitzeko: Aurreko ataletan adierazitako egiaztagiriak baloratzea dagokionean, parte-hartzaileak aurkeztutakoen artean maila altuena duena baino ez da kontuan hartuko.	 <

g) Euskararen ezagutza.

Lanpostuak betetzeko hizkuntz eskakizuna izatea derrigorrezkoa ez denean, euskaraz jakitea merezimendutzat joko da eta honela baloratuko da:

– 1. hizkuntz eskakizuneko lanpostuak eskatzeko orduan, derrigortasun-eguna atzeratuta badago:

1. hizkuntz eskakizuna egiaztatuta izatearren: puntu 1.

2. hizkuntz eskakizuna egiaztatuta izatearren: 2 puntu.

– Derrigortasun-data igarota duen 1. hizkuntz eskakizuneko lanpostuak eskatzeko orduan:

2. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatearren: puntu 1.

Tituluak baloratzeko, tituluak eurak aurkeztuko dira edo, behar izanez gero, titulu horiek lortzeko ikasketak egin direla egiaztatzen duten ziurtagiriak. Halaber, hizkuntz eskakizun horiekin legez homologatuta dauden hizkuntz ziurtagiriak izatea egiaztatuz gero, hizkuntz ziurtagiri horiek baloratu ahal izango dira, edo bestela, apirilaren 3ko 47/2012 dekretuak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak ezagutzeari buruzkoak eta ikasketa horiek euskarazko hizkuntz ziurtagiriekin egiaztatu behar izatetik salbuesten duenak, aipatzen dituen zirkunstantziak egiaztatuz.

h) Eskatutako lanpostuarekin zuzenean lotutako prestakuntza-ikastaroak.

h.1.– Emandako ikastaroak: Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak, autonomia erkidegoetako hezkuntza-administrazioek edo hezkuntza-administrazio horiek homologatu edo onartutako irabazte-asmorik gabeko erakundeek eta unibertsitateek antolatutako etengabeko prestakuntzako ikastaroetan (hainbat modulutan ulertuta: lan-taldeak, mintegiak, ikastetxeetako prestakuntza-taldeak, ikastaroak) ponente edo irakasle gisa parte hartu edo ikastaro horiek gidatu, koordinatu edo horien tutorea izateagatik:

Ikastaroko 10 orduko 0,20 puntu eta, gehienez, 2 puntu.

h.2.– Gainditutako ikastaroak: irakasleak etengabe prestatzeko hezkuntza-eskumenak dituzten herri-administrazioek eta unibertsitateen menpeko organoek antolatutako ikastaroetara (aurreko puntuan adierazitako moduan ulertuta) joateagatik.

Gainditutako eta egiaztatutako ikastaroko 10 orduko 0,20 puntu emango dira eta, gehienez ere, 3 puntu.

i) Zuzendaritza karguetan aritzea.

i.1.– Zuzendari izateagatik ikastetxe publikoetan, autonomia-erkidegoek beren deialdi zehatzetan ezarritako irakasleen eta baliabideen zentroetan edo antzeko erakundeetan, bai eta Gaztelania eta Espainiako Kulturaren taldeen zuzendari izateagatik ere: 1,50 puntu urteko.

Urte-zatiak zenbatzeko orduan, 0,125 puntu emango dira hilabete osoko.

i.2.– Ikastetxe publikoetan zuzendariorde, azpizuzendari eta ikasketa-buru izateagatik: puntu 1 urteko.

Urte-zatiak zenbatzeko orduan, 0,0833 puntu emango dira hilabete osoko.

Bosgarrena.– Batzorde bat eratuko da c), e) eta h) idatzi-zatietan parte-hartzaileek alegatutako merezimenduak baloratzeko. Batzordeak kide hauek izango ditu:

● Lehendakaria: Hezkuntzako Ikuskarien kidegokok funtzionario bat, Langileriaren Kudeaketarako zuzendariak izendatua.

● Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzako teknikari bat, idazkari gisa jardungo duena.

● Bi kide: Maisu-Maistren Kidegoko funtzionarioak, irakasle gisa EAEra atxikitako espetxeetan, batez ere, zerbitzuak eman dituztenak.

● Kide bat: EAEko funtzionario irakaslea, EAEra atxikitako espetxeetan arreta ematen duten Helduen Hezkuntzako Ikastegietako zuzendarien artean aukeratua.

Zozketa bidez izendatuko dira kideok.

Ordezkaritza gehien duten erakunde sindikalek ordezkari bat izendatu ahal izango dute batzordeko, begirale-lana egiteko.

Deialdiaren gai diren lanpostuez jabetzeko eskatzen den titulu-taldekoak edo goragokoak izan beharko dute batzordeetako kideek eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 legearen 28. eta 29. artikuluetan aipatzen diren abstentzio- eta ezespen-kasuen pean egongo dira.

Horren kontrako arrazoi sendorik adierazi ezean, gizonek zein emakumeek gutxienez % 40ko ordezkapena izango dute batzordeetan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen bidez aldatutako Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 31. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuaren (26ko EHAA) 6. eta 16. artikuluetan xedatzen diren ondorioetarako, zerbitzuengatik eman behar diren kalte-ordainen zenbatekoak gaurkotzen dituen ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuaren hirugarren aldaketak (28ko EHAA) xedatzen denaren arabera ordainduko dira bidaiengatiko ordainketak.

Parte-hartzaileak asko badira, behar izanez gero, beste batzorde bate do batzuk eratu ahal izango dira, eta arestian adierazitako kide eta ezaugarri berak izango dituzte.

Dagokien administrazio-atalek jarriko dute parte-hartzaileei baremoaren beste idatzi-zatietan dagokien puntuazioa.

Seigarrena.– Puntuen guztirakoan berdinketarik badago, baremoaren atal guztietan azaltzen den puntuazioriK handiena hartuko da kontuan, laugarren oinarrian duten hurrenkeraren arabera. Berdinketak bere horretan segitzen badu, azpi-ataletan lortutako puntuak aintzat hartuko dira, baremoan agertzen diren hurrenkerari jarraikiz. Beharrezkoa izanez gero, maisu-maistren kidegoan sartzeko oposaketa-urteak ebatziko du eta urteen artean, berriz, urterik zaharrenak.

IV.– Lanpostu hutsak.

Zazpigarrena.– Deialdi honen II. eranskinean irakaskuntza-lanpostu bereziak dituzten ikastetxeen zerrenda argitaratzen da, deialdi honetan bete daitezen.

Aipatutako lanpostu hutsak esleitzearen ondorioz, hutsik geratzen bada Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako maisu-maistren lanpostu-zerrendak onartzen dituen 2012ko urriaren 16ko 207/2012 Dekretuak jasotzen duen beste lanposturen bat (Helduen Hezkuntzako Ikastegiak, zailak diren espetxeetan bete beharreko lanpostu bereziak**),** lanpostu hori automatikoki ikasturte honetako esleitzeko prozesuari gehituko zaio.

V.– Eskaeraren formatua eta eskaera nola bete.

Zortzigarrena.– Instantzia, agindu honen III. eranskineko ereduaren araberakoa, horretarako ezarritako epean aurkeztu ahal izango da: Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan, Hezkuntza Administrazioetako organoetako zerbitzuetan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipatzen diren bulegoetakoren batean.

Bederatzigarrena.– Jasotako ikastetxeetako irakaskuntza-lanpostu berezi guztiak eskatu ahal izango dira.

Hamargarrena.– Eskatzen diren lanpostuen aipamena egingo da instantzietan, lehentasun-hurrenkeraren arabera. Eskabide-inprimakian aipatzen diren kontzeptuak ahal den argitasun handienaz emango dira aditzera. Daturen bat eman ez edo oker ematen bada, interesatuak ezin izango d udatu hori aurkeztu bere aldeko erreklamazioren bat egin nahi izanez gero. Instantzia entregatu ostean, ezin izango da inondik inora aldatu, ezta eskatutako lanpostuen hurrenkera aldatzeko ere. Kodeak eskabidean jarri ez direla ulertuko da, bertan azaltzen diren kodeak irakurtezinak badira, osorik ez badaude edo dagokien laukitxoan idatzita ez badaude. Beraz, eskatzaileek horiekiko eskubide guztiak galduko dituzte.

Zortzigarren oinarrian ezarritako epearen barruan lehiatzaile batek deialdi honetan parte hartzeko eskabide bat baino gehiago aurkezten badu, erregistratutako azken eskabidea baino ez da kontuan hartuko. Eskabideak egun berean aurkeztuz gero, lehiatzaileak Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio zein eskabidek balio duen.

Hamaikagarrena.– Eskabidearekin batera aurkeztu beharrekoak:

1.– Hobekuntza-ikastaroak egin direla eta kidegoan sartzeko aurkeztutako tituluez besteko titulazio akademikoak ziurtatutako dituzten agiriak, erregimen bereziko titulazioak eta egin diren argitalpen-aleak, horiek baloratzeko.

Hobekuntza-ikastaroei dagokienez, ikastaroaren edo ikastaroen iraupen-orduak aitortu beharko dira derrigorrean. Hori aditzera ematen ez bada, ez zaie emango inolako baliorik ondorio hauetarako, salbu ikastaroek orduetan duten balioa, ikastaro horietarako deialdia egin duten hezkuntza-administrazioetako agintedun organoen erabaki-bidez, finkatuta dagoen kasuetan.

Lehenengo zikloko tituluei puntuak emateko, diplomatura-tituluaren fotokopia aurkeztu beharko da edo, hala behar izanez gero, norberaren egiaztagiri akademikoa. Honako hau jaso beharko da egiaztagiri horretan: lizentziaturak, ingeniaritzak, arkitekturak dituen lehenengo hiru kurtsoen ikasgaiak egin eta gainditu direla. Egokitze-kurtsoa gainditzea ez da lehenengo zikloko titulutzat joko.

Lizentziatura, ingeniaritza edo arkitektura tituluaren fotokopia aurkeztuz gero, 2. zikloko tituluari dagokion puntuak onartuko dira, beste ondoriorik gabe.

Maisu-Maistren kidegoan sartzeko baldintza legez alegatu ziren titulazioak ez dira inola ere lehen edo bigarren zikloko titulazio gisa baloratuko.

2.– Hizkuntz eskakizuna egiaztatuta dutela egiaztatzen duen dokumentazioa, edo hizkuntz eskakizun horien legezko baliokide diren hizkuntz ziurtagiriak, aurkeztu beharko dute lehiatzaileek; bestela, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak ezagutzeari buruzkoak eta ikasketa horiek euskarazko hizkuntz ziurtagiriekin egiaztatu behar izatetik salbuesten duenak, aipatzen dituen zirkunstantziak egiaztatu beharko dituzte.

Agiri horiek ez dira aurkeztu beharko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko urriaren 26ko Aginduaren bidez (Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko eta Helduen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako, bai Irakaskuntza Ertainetako ikastetxeetan dauden zereginen ikaskuntza geletako lanpostuak betetzeko deialdia iragartzen duen aginduaren bidez) deitutako lekualdatze-lehiaketan parte hartuz gero. Izan ere, Administrazioak agiri horiek baloratu eta hortik ateratzen den puntuazioa sartuko du espedientean. Edonola ere, lehiatzaileak administrazioari jakinarazi beharko dio agiriak lehiaketa horretan aurkeztuta dituela dagoeneko.

Hamabigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea 15 lanegunekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

VI.– Tramitazioa.

Hamahirugarrena..– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bosgarren oinarrian aurreikusitako baremotze-batzordeen aktak jaso eta gero, lurralde ordezkaritzetan ikusgai jarriko da Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren ebazpena, onartu eta baztertutako lehiatzaileen behin-behineko zerrenda argitaratzeko. Zerrenda horretan, baremoaren atal bakoitzean onartuei emandako puntuak adieraziko dira.

Onartu eta baztertutako lehiatzaileek bost lan-eguneko epea izango dute behin-behineko ebazpen horren kontra erreklamazioak jartzeko, ebazpena jartzen den egunetik kontatzen hasita.

Hamalaugarrena.– Aurreko oinarrian adierazitako gorabeherak ebatzi ondoren, onartu eta baztertutakoen behin-betiko zerrendaren eta behin-behineko esleipenaren berri emango da, lehiatzaileen eskaeren eta merezimenduen arabera. Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren ebazpenaren bidez argitaratuko da.

Hamabosgarrena.– Lehiatzaileek bost laneguneko epea izango dute destinoen behin-behineko esleipenari erreklamazioak jartzeko, esleipena argitaratzen den egunetik hasita. Epe horrexetan, lehiatzaileek uko egin ahal izango diote lekualdatze-lehiaketan parte hartzeari. Horren ondorioetarako, kontuan izan behar da behin-behineko ebazpenean destinorik ez lortzea k ez duela adierazi nahi behin-betiko esleipenean lortuko ez denik.

Hamaseigarrena.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak behin betiko ebazpena emango du, bidezko aldaketa sartuta, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko du. Horrela, ulertuko da eragindako lehiatzaile guztiei ematen zaiela horren berri.

Hamazazpigarrena.– Edozein lehiatzailek lortutako destinoa ezeztatu ahal izango da deialdien arauak bete ez baditu edo eskabidean aitortutako ezaugarriak eta aurkeztutako agiriak bat ez datozenean.

VII.– Bestelako arauak.

Hemezortzigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean beteta eta aitortuta egon behar dira hala lehiatzaileek alegatzen dituzten merezimenduak nola deialdi honetan eskatzen diren baldintza guztiak.

Hemeretzigarrena.– Ez da kontuan hartuko eskabidean aipatu gabeko merezimendurik, ezta agiri bidez dagokion epean justifikatu ez denik ere.

Hogeigarrena.– Lehiaketaren deialdian eszedentzia-egoeratik parte hartzen duten maisu-maistrek destinoa lortzen badute, lortutako destinoaz jabetzeko, lanpostuaz jabetu baino lehenago agiriak aurkeztu beharko dituzte destinoari dagokion Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzan. Hona aurkeztu beharreko agiriak: eszedentzia-ebazpenaren kopia eta aitorpena; aitorpen horretan adieraziko da lehiatzailea ez dagoela estatuko, autonomia erkidegoko edo toki mailako administraziotik diziplinazko espediente bidez baztertuta edo egiteko publikoak betetzeko ezgaituta. Lanera berriro sartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela justifikatu ezin duten maisu-maistrak ezin izango direla jabetu lehiaketan lortutako destinoaz. Ondorioz hutsik gelditu ko da lanpostu hori, hurrengo deialdian bete ahal izateko.

Hogeita batgarrena.– Deialdi hauetan parte hartu, deialdi hauei ebazpena emateko aldian eszedentzia eskatu eta eskuratu edo, nolabaiteko kausaren bat dela medio, lanari utzi dioten maisu-maistra, deialdietan legokiokeen lanpostuarekiko eszedentzian daudela edo kargugabetutzat joko dira. Lanpostua, ondorioz, hutsik gelditu ko da eta hurrengo lehiaketan beteko da.

Hogeita bigarrena.– Deialdi hauetan lanpostua lortzen duten eta deialdi horien izapideak egiteko aldian destinoak trukatu dituzten maisu-maistrek, horretarako izendatuak izan direneko lanpostuan egin beharko dute lana eta emandako trukaketa indargabetuta gelditu ko da.

Hogeita hirugarrena..– Deialdi honetan destinoa lortzen duten maisu-maistrek ezin izango dute parte hartu lanpostuak betetzeko beste deialdi batean, deialdi honetan lortzen duten destinoaz jabetu eta bi urte igaro arte.

Hogeita laugarrena.– Ezin izango zaie uko egin deialdiaren behin-betiko ebazpenean esleitutako destinoei.

Hogeita bosgarrena.– Lehiatzaileak 2013ko irailaren 1ean jabetuko dira destino berriaz eta jatorriko destinoak abuztuaren azken egunean galduko du indarra.

II. ERANSKINA

LANPOSTU HUTSAK

Ikastetxe kodea	Ikastetxea	Herria	Lurraldea	Lanpostua	Hizkuntza eskakizuna	Derrigor. data	Lanpostu kopurua
010123	Paulo Freire HHI	Vitoria-Gasteiz	Araba	HHH	1HE	DG	3
010123	Paulo Freire HHI	Vitoria-Gasteiz	Araba	HHI	2HE	B	1
010123	Paulo Freire HHI	Vitoria-Gasteiz	Araba/	HHF	1HE	DG	1
014083	Basauri Denon Eskola HHI	Basauri	Bizkaia	HHI	2HE	B	1
012211	Ignacio Zuloaga HHI	Donostia	Gipuzkoa	HHH	1HE	DG	1
012211	Ignacio Zuloaga HHI	Donostia	Gipuzkoa	HHI	2HE	B	1

III. ERANSKINA

HELDUEN HEZKUNTZA IKASTETXEETAKO LANPOSTU BEREZIAK BETETZEKO MEREZIMENDU LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO ESKABIDE ORRIA

1. abizena/*Apellido 1.º*	2. abizena/*Apellido 2.º*	
Izena/*Nombre*	NAN/*DNI*	Telefonoa/*Teléfono*
Helbidea/*Domicilio*	Herria/*Localidad*	Posta kodea/*Código postal*
Destinoaren ikastegia/*Centro de destino*	Herria/*Localidad*	Lurraldea/*Territorio*

LANPOSTUAK

Ord.	Ikast.-kod	Espezialitatea	HE	Derrig.
01				
02				
03				
04				
05				
06				
07				
08				
09				
10				

MEREZIMENDUAK

A) B) Egindako zerbitzuak

a) Espetxeetako irakaskuntza-lanpostuetan, funtzionario gisa emandako denbora:

b) Maisu-maistren kidegoan, karrerako funtzionario gisa, zerbitzu aktiboan emandako urteak:

C) Ikastaroak

c.1.– Emandako ikastaroak:

c.2.– Gainditutako ikastaroak:

D)F) Ikastagiriak

E) Argitalpena

G) Euskararen ezagutza

H) Lanpostuarekin zerikusia duten prestakuntza ikastaroak

h.1.– Emandako ikastaroak: h.2.– Gainditutako ikastaroak:

Tokia	Espreski adierazten dut, eskabide honetan adierazitako datuak egiazkoak direla, eta deialdian eskatzen diren baldintza guztiak eta bakoitza betetzen ditudala Izenpea	Zigilua
Data		

PRIBATUTASUNA
Datu Pertsonalak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko Lege Organikoan (BOE 298 1999ko abenduaren 14an) xedatutakoa betetzeko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Departamentuak, bere aplikazioen bidez jasotako datu pertsonalak automatizatuko direla eta Departamentuaren Datu Basean gordeko direla berri ematen du. Erabiltzaileek, datuetara sartu, horiek zuzendu, ezabatu eta baliogabetzeko eskubidea une oro izango dute, aipatutako legeak esaten duen bezala eta Informazioaren Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoaren Zerbitzuei buruzko Legean ezarritako baldintzak jarraituz (34/2012 Legea, uztailaren 11koa).